

XXI mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak

Oinarrizko txostenaren aurkezpena hedabideen aurrean

Abian da hizkuntza politikari buruzko eztabaida publikoa. Euskara guztiona eta guztiontzako bada, guztion egitekoa eta guztion obligazioa da euskarari etorkizun osasuntsua bermatzen saiatzea, euskara biziberritzen laguntzea, alegia. Era berean, ordea, euskara guztiona eta guztiontzako bada, guztion eskubidea da euskararen etorkizunari buruzko erabakiak hartzerakoan guztion ahotsak entzunak izatea eta guztiok izatea parte hartzeko aukera, euskal hiztunek bezala euskal hiztun ez diren herritarrek, kolore politiko batzuetakoek bezala bestetakoek, guztion artean erabaki behar dugulako zer-nolako lekua eman euskarari gure gizartean eta nola hezurmamitu hemen ditugun bi hizkuntzen arteko bizikidetzan. Horrek guztiorrek eztabaida eta ikuspuntu ezberdinen arteko kontrastea eskatzen du. Horretarako jarri dugu martxan gaurtik aurrera abian den hizkuntza politikari buruzko eztabaida zabal eta irekia.

Edonork pentsa dezakeenez, gaur bertan abian jarri dugun eztabaida denbora luzean prestatutako eztabaida izan da. "Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2005 – 2009 egitasmoa" izeneko dokumentuan legealdi honetarako jaso genuen konpromiso nagusietarikoa da hain zuzen ere eztabaida hau martxan jartzea. Pozik gaude azkenean konpromiso hori betetzea lortu dugulako, eta nire eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiet konpromiso hori betetzen lagundu diguten guztiari. Zehatz-mehatz hauxe dago idatzita 2005 – 2009 legealdirako jardunbide nagusien hamahirugarrenean:

"Hizkuntza politikaren arloan egindako bidea eta ondorengo urteetan eman beharreko pausoak aztergaitzat hartuta, hausnarketa eta debatea bultzatzea (...) Aztergaiari dagokienez, ahalik eta zabalena, eta parte hartzaileei dagokienez ahalik eta irekiena izango da gogoeta. Euskararen munduak ez ezik erdal munduak ere lekua izango du, nahitaez, ekimen honetan. Erakunde publikoak, hezkuntza, kultura, hedabideak, enpresa, alderdi politikoak, sindikatuak, elkargo sozial eta ekonomikoak, euskalgintza ...: esparru guztiek izango dute tokia debate horretan. Iraganaz lasai eta askatasunez eztabaidatzea, eta etorkizunerako lan-ildoak eta lehentasunak finkatzea izango da debate horren egiteko nagusia. Hitzaldiak, jardunaldiak, mintegiak, artikulatuak, txostenak, ... izango dira gogoetaren tresna nagusiak. Euskararen normalkuntza aurrera jarraitzeko ilusioa berpiztea izango du debate horrek helburu".

2007ko urrian Euskararen Aholku Batzorde berria eratu genuen, eta Euskararen Aholku Batzorde berriak, 2007ko urriaren 25ean, Miren Azkarate Kultura

sailburuaren proposamenez, “XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak” izena duen batzorde-atala eratzea erabaki zuen, aho batez.

2008ko urtarrilaren 14an batzorde-atal berezi horretako kideak izendatu nituen, 40 lagun guztira, eta lanari ekin genion. Arlo eta ikuspuntu ugarietako kideak dira batzorde hori osatzen dutenak. Batzorde horren barruan, batzorde iraunkor bat ere eratu genuen, eztabaida honi ekiteko beharrezkoa den oinarrizko eta abiaburuzko txostena idazteko enkargua hartu zuen batzorde iraunkorra. Aurelia Arkotxa, Lore Erriondo, Alberto Lopez Basaguren, Eneko Oregi eta Pello Salaburu dira batzorde hau osatu dutenak, Erramun Osa koordinatzaile eta idazkari, eta ni neu, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, presidente izan nauen batzorde iraunkorra. Talde hori da esku artean duzuen oinarrizko txostena atondu duena.

Ordu askotako eztabaida eta askotarikoen arteko adostasunaren emaitza da oinarrizko txosten hau. Ez da dokumentu itxia, inolaz ere. Dokumentu honek, taldeko kideek hizkuntza politikari buruz esateko duten guztia ez du laburbiltzen, ezta gutxiagorik ere, ez baita hori xedea. Taldekideek ñabardura ugari egingo lituzkete testu honen beraren gainean ere eta esateko askoz gehiago daukate. Testuaren helburua eztabaida abian jartzea da, ez gehiago, ezta gutxiago ere.

Gaur aurkeztu zaio dokumentu hau Euskararen Aholku Batzordean eztabaida hau bultzatzeko sorturiko 40 laguneko Batzorde-atalari. Datozen asteetan, ekainaren lehen astea bukatzerako beranduenik ere, batzorde-atal horretako kide bakoitzak bere dokumentua idatziko du oinarrizko honen gainean. Dokumentu horiek guztiak, eta gaur aurkezten dugun oinarrizko hau, guztiak ere egin ahala argitara emango ditugu, bai edizio inprimatu bidez, baita eztabaida honen berri izateko eta bertan parte hartzeko gaurtik aurrera herritar guztien esku dagoen webgune berezi baten eskutik.

Webgunearen helbidea hau da: www.euskadi.net/euskara21

Edozein herritarrek aukera izango du webgunean bere iritziak plazaratzeko, bai dokumentu hauen gainean, baita hizkuntza politikari buruz oro har ere. Eztabaida hau gizarteratzeko ekintzen artean mintegiak ere antolatuko ditugu. Gutxienez urte honen bukaeraraino luzatuko da eztabaida hau. Gure helburua da, Euskararen Aholku Batzordeko 70 kideez gain, webgunearen eta mintegien bidez zuzenean ehunka herritarrek parte hartuko duten eztabaida izatea.

Eztabaidaren bukaeran, lortu ez dakit lortuko dugun, baina ahalegindu bederen ahaleginduko gara eztabaidaren konklusio moduko dokumentu berri bat ontzen. Ikusiko dugu norberaren jarreretatik lagun hurkoaren arrazoiatar

hurreratzeko kapaz ote garen. Gu guztion beharra baitu euskarak eta haren indarberritzeak. Euskara gu guztiona delako, denontzat delako, inorena eta inorentzat izango bada.

Uste dugu, eta hala izan dadin nahi dugu, aspaldiko urteetan gure artean hizkuntza politikaren gainean izan den eztabaidarik zabal, ireki eta handiena izango dela: handiena, hedadurari eta parte hartzaile kopuruari dagokionez; zabal eta irekiena, mahairatuko diren eta bata bestearen artean kontrastatuak izango diren ikuspuntuaren ugaritasunari dagokionez. Seguru nago gai izango garela giro lasaian, tamaina honetako eztabaida batek eskatzen duen zorrotasun eta gordintasunez, erdi-egien edo erdi-gezurren erosotasunean erori gabe, baina, aldi berean, soseguz eta errespetuz eztabaidatzeko. Ziur naiz gai izango garela beti aberatsa eta emankorra den askatasunean eztabaidatzeko, hanka sartzeko beldurrik gabe, ertz batetik euskararen etsaitzat eta beste nonbaitetik euskararen talibantzat deskalifikatuak izateko beldurrik eta arriskurik gabe.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ikuspegitik euskarak eta euskal gizarteak behar dugu honelako eztabaida bat. Eztabaida honen beharra adierazteko lau hitz uztartuko ditut: euskararen erabilera, atxikimendua, kontsentsua eta transbertsalitatea.

Euskararen etorkizuna bermatzeko erabilera sendotu eta areagotu behar da, bistan da hori. Erabilera sendotzeko eta areagotzeko bidean hainbat gauza dira beharrezkoak, baina bada bat guztien gainetik argi eta garbi nagusitzen dena, eta erabakigarriena dena: atxikimendua. Herritarren atxikimendua eta leialtasuna dira, zalantzarik gabe, euskararen etorkizuna bermatu dezaketena *“lege, dekretu, aurrekontu eta plangintzarik”* eraginkorrenak.

Herritarren atxikimendua eta leialtasuna ez dira berez sortzen, herritarren borondatean bakarrik izan dezakete oinarri sendoa, eta borondate hori elikatu egin behar da. Atxikimenduak eta leialtasunak izan dezaketena elikadurarik behinena eta erabakigarriena kontsentsu eta akordio sozial, politiko eta kulturala da.

Kontsentsuak ahalbidetu zuen hainbeste aurrerapauso emateko zutoin erabakigarria izan den 1982ko Euskararen Legea, eta kontsentsu eta adostasun sozial, politiko eta kulturalak ahalbidetuko du euskarak XXI mende hasiera honetan behar duen bultzada. Adostasuna baita etorkizuna irabazteko baldintza. Handiegia delako, adostasunik gabe, zapuzkeriaren amaraunean erortzeko arriskua.

Anizkoitza, kolore ugaritakoa, sentsibilitate ezberdinetako gizon-emakumeez osaturikoa da euskal gizartea, eta ezberdinen arteko adostasun sendoa da euskararen zerbitzuan jar dezakegun hauspo eta makulurik indartsuena. Behar dugu, ezinbestekoa dugu, euskararen gainean gaur egun daukagun baino adostasun handiagoa eta sendoagoa izatea. Daukaguna baino adostasun sozial handiagoa behar dugu, askoz handiagoa. Horrek, besteak beste, zuhurtzia eta eskuzabaltasuna eskatzen dizkigu guztioi.

Askotan aipatzen den kontzeptua da transbertsalitatea. Nik begi onez ikusten dut kontzeptu hori, guztiz sinesten dut bere ontasunean. Izan ere, euskal gizartean zerbaitetan baldin badugu ezinbestekoa transbertsalitatea, hain zuzen ere euskara eta hizkuntza politika kontuetan dugu beste ezertan baino beharrezkoago.

Adostasunak eta kontsentsuak eta transbertsalitatea, ordea, ez dira berez sortzen, horiek ere elikatu egin behar dira. Alferrik geundeke haiek zerutik noiz etorriko zain. Adostasunak, edo nahiago bada kontsentsuak, lehenik eta behin, elkarrizketa, eztabaida, iritzi trukaketa eta kontrastea behar ditu. Borondate oneko eztabaida leialaren emaitza soilik izan daitekeelako adostasun hori, eta inoiz ere ez inolako inposizioen ondorio. Horrexegatik eta horretara dator hain zuzen ere gaur abian jarri dugun eztabaida.

Euskara biziberritzeko ilusioa berpiztu nahi dugu. Ilusio hori gizarte osora iristea nahi dugu, ez bakarrik euskaltzaleengana. Izan ere, konbentziturik baikaude, euskararen kontu honetan denbora laburrean kilometro asko egitea baino garrantzitsuagoa dela, denbora luzeagoa behar izanik ere, kilometroak jende askok eta askok egitea, edo mendi gailurrera bizkorrena bera bakarrik ez baizik eta ahalik eta jenderik gehiena iristea.

Horrek guztiorrek, gainera, elkarren berri jakitea eskatzen du, bakoitzaren ikuspegiak mahai gainean jartzea eta adostasunak bilatzea, transakzionatzea, transbertsalitatea gauzatzea, hitz batean esateko. Gure gizartearen defizit latz eta mingarria da gertatzen zaigun honakoa: hizkuntza hegemonikoan –gaztelaniaz, alegia- ari diren askok ez izatea hizkuntza gutxitutakoaren –euskararen- jakin-minik eta berririk. Ezin ekar diezaguke ezer onik gure gizartearen zati batek beste zati bat ez ezagutzeak eta zati hori inexistenziara kondenatzeak, ikusezin bihurtzeak. Ahalegin berezia egin beharrean gaude gaztelaniaz bizi den komunitatearen eta euskararen munduen arteko etena pixkanaka desagerrarazteko. Zubigintza edo transbertsalitatea nahitaezkoa dugu horretan. Ez lioke inork gure artean bizkarra erakutsi behar euskarari. Ez biezaio inork uko egin euskarari, ez beza inork bere burua euskararen jabe bakar eta eksklusibo bihurtu, ez beza inork bere burua euskaratik urrundu, egin dezagun guztiok geure euskararen erronka.

Horretara dator gaur abian jarri dugun debate zabala, inoiz egin diren guztietan hedaturarik handienekoa eta irekiena. Harro gaude euskara guztion ondarea izateaz, hala dela aldarrikatzen dugu kolore politiko guztien gainetik, baina benetan amesten duguna honakoa da: euskara, guztion ondare den neurri berean irits dadila guztion hizkuntza, gu guztion eguneroko hizkuntza, izatera. Horretarako, ordea, etengabe elikatu behar ditugu norberaren borondatean eta eztabaida zintzoan oinarrituriko atxikimendua eta adostasuna. Konbentziturik nago horretarako lagungarri gertatuko zaigula gaur abian jarri dugun eztabaida.

Bukatzeko, bi kontu. Alde batetik, nire eskerrik beroenak eta zintzoenak eman nahi dizkiet eztabaidaren abiapuntu izango den oinarritzko txostena adosteko eta atontzeko gai izan direnei: Aurelia Arkotxa, Lore Erriondo, Alberto Lopez Basaguren, Eneko Oregi eta Pello Salaburu jaun-andreei, nola baita ere koordinatzaile lanetan aritu den Erramun Osa jaunari. Bestetik, herritar guztiei dei egiten diet eztabaida honetan parte har dezaten, dokumentuak irakurriz, euren iritzia webgunean kaleratuz, hedabideetan idatziz eta mintegietan parte hartuz.

Donostian, Miramar Jauregian, 2008ko apirilaren 29an

Patxi Baztarrika, Hizkuntza Politikarako sailburuordea.